



MUSIKA

# Ona dena eta pena



**AIRU**  
**CON LO BUENO Y**  
**CON PENA**

OSO POLITA, 2023

XALBA RAMIREZ

Pozten naiz Airu ez dudalako entzun garai ilun batean. Pentsa bikoteki-dearekin apurtu berri edo gertukoren bat galduta hartzen duzula disko hori. Alejandra Pizarnik bera berpizteko gai nintzateke. Tristuraren inguruan, eta tristuratik egindako pieza, itxuraz, minimalista da *Con lo bueno y con pena*. Eta bidaia bat da: doluaren bidaia.

Bilbotik datoz Airukoak, eta, onartu behar dut, apur bat ezinikusia eragiten didan bertako dardara moderno eta *arty*-arekin lotzen nuela taldea. Bigarren entzunaldi zintzoak, ordea, geruza ugariko dream-pop goibel eta nostalgiko zainduaz gozatzeko aukera eman dit. Triste eta pozik egoteko istorio horietako bat da.

*Cuenta, cuenta, cuenta*-n bateria eta baxuak isildu, eta letrak hartzen du pi-

sua. Bikote harremanetan (batez ere) ematen diren komunikazio arazo erraldoien aurrean korapiloak nola askatu proposatzen du: “Ikusten duzu nola ateratzen zaizun esateko zerbait?”.

Kontua horixe bera baita: nola sendatzen dira zauriak? Harrigarria da pop kulturaren zein pisu duten kantuek dolu prozesuetan. Pertsonai iltzatuta gertzen dira melodiak, eta ezin ditugu berpiztu gabe utzi.

Sendatu arren, “orain soilik geratu naiz onarekin, eta penarekin”.

Gaztelania hutsean kantatu du oraingoan taldeak –lehen ingelesa zuten hizkuntza nagusi–, eta gaztelaniaz den arren, kanten tituluak halako esaldi bat osatzen dute: “Zu bizkarra emanda ikustea itxialdi bat da. Oinak kokatzen ditut,

zure onerako da. Eta honaino: kontatu, kontatu, kontatu haraindian, zer dakizu nitazu? Zenbat denbora iraungo duela diozu? Beste aukerarik ez bazenu bezala begiratzen saiatzen naiz: nire bizkarrean dantzatu”.

Nahiago nuke gure gizarteak doluetarako antsiolitiko, psikoanalista eta pop taldeen beharrik izango ez balu. Nahiago nuke erritual komunitarioak indartuko balira, eta eguneroko bizitzaren gainean kontrola izango bage-nu; aurre eginez kolektiboki gure arazo pertsonalei eta heteroarauak, sistema arrazistak eta soldatapeko lanak eragiten dituen trauma guztiei. Bitartean, *tontipop* pixka batek dolua arintzen lagundu dezake. Eta aizu, hori ez da batere gutxi. ●